

SITSA ETA ZERENA, BI GAUZA DIRA.—Euskalkirik gehienetan *pipia*-rekin ezagutzen dira gaztelerazko «polilla» eta «carcoma». Bereizketarik gabe. Baina, Bizkaian eta Gipuzkoako zenbait tokitan oihalaria eta zurari sortzen zaizkien zomorroak beren izen jatorrak dituzte: *Sits*, «polilla» eta *Zeren*, «carcoma» (xilófago).

Azkuek bere Hiztegian oso argi dakar *Sits*, baina *Zeren*, xilofagoa, hirugarren mailako eta bereizkuntzarik gabe. Horrez gainera, *Zeden* ere badakar, bigarren mailako eta ez hain ongi zehaztua. Toribio Etxebarriak ordea, «Lexicón»en (*Euskera*, X-XI, 1965-66), «ziz da biz» ematen du bien arteko bereizketa. *Zits*, zetakin badakar ere, bere esan nahia «Polilla. La de la madera: zerena» bereiztuko du ondoko esaldi hau adierazgarri gehituz: «*Zitsak jan detsa soñekurik onena* Le ha comido la polilla el mejor vestido». Zerenaren adierazpena aldiz, honako esaldiz: «Polilla que ataca la madera, sinón. zitsa. *Zerenak jaten dau egurra, zitsak erropia*».

J. S. M.